

Antzerkira - Arte eszenikoetara gerturatzeko 3 saió monografiko

UDAZKENEKO ANTZERKI IKASTARO ZIKLOA

ANTZEZTEAK MUGARIK EZ DUELAKO...
MUNDUTIK OÑATIRA ETA OÑATITIK MUNDURA!!!



Antzerkia elkargunerako espazio gisa

Gorputzak, ahotsak eta imaginazioak parte hartzen duten jokuen bidez antzerkiaren esentzia bilatuko da: antzerkia posible egiten duten parte hartzaileen arteko elkarreratzea. Horretarako banakako eta taldeko ariketak egingo dira, non presentzia, konfidantza, desinhibitzea, arreta eta harremantzeko erak landuko diren. Helburua gorputz kolektibo bat sortzea da, malgua, espontanea eta erakargarria. Irakaslea: Ulises Vargas (Mexiko). Aktorea, performerra, idazlea eta antzerki irakaslea

Arte eszenikoetarako mugimenduaren ikerketa eta esplorazioa

Tailer honetan mugimendua sortzen duten faktoreak landuko dira: pisua, denbora, energia eta espazioa. Horretarako inprobisazio gidatuak erabiliko dira, arreta handia jarriz jario konstantean eta bertatik sortzen den dantzan. Horretaz gain, mugitzeko, dantzatzeko eta komunikatzeko gaitasuna duen gorputz sentikorrera gerturatzeko zentzumenak suspertuko dira, non partehartzaile bakoitzak bere gorputz-hizkuntza propioa garatuko duen, gorputz bizi eta adierazkor bat aurkituz bertan, sortzen duen horren kontziente.

Irakaslea: Pablo Zamorano (Txile). Dantzaria, performerra eta dantza irakaslea



AZAROAK 16



Gorputz eta ahots entrenamendua antzerkian

Partehartzaileak bere burua eta besteak ezagutzeko bidaia bat egingo du tailer honetan, bere imaginazioaz eta orientazioaz jabetuz. Antzeztuz eta sortuz, norberaren sentsibilitatea bilatuko da. Prozesu honetan bidea irekiko da errealitatearen behaketarako, honen izaera poetikoa aurkitzera heldu arte. Horretarako geure buruarekin eta ingurukoekin ditugun harremanetan sakonduko da, baita gorputza bizi den espazioarekin dugun erlazioan ere. Helburua bakoitzaren gaitasunak ezagutzea eta talde lana lantzea izango dira.

Irakaslea: Raffaella Menchetti (Italia). Aktorea, performerra eta artista bisuala.

Ordutegia: 10-13 eta 15-18

Tokia: Irazan Antzerki Gunea, Eltzia (Oñati)

Prezioa (tailer bakoitzeko): 30€ langileak, 20€ ikasle eta langabetuak

Hizkuntza: Gaztelera

Izen ematea eta informazio gehiago: irazan.eskola@gmail.com

